



© Gabonetako

ATARIA.EUS · 107.6 FM **GEHIGARRIA**
Osteguna, 2025eko abenduaren 18a



Gabon hauetan **oparitu** **ataria**

Opari honekin, **ataria** babesteaz gain,
maite duzun horri 365 egunetan
euskarazko eskualdeko albisteak oparituko dizkiozu.



Babestu **ataria** • Oparitu harpidetza • Eskatu zurea: 943 65 56 95 / ataria@ataria.eus



Osteguna,
2025eko abenduaren 18a

URTEKO HARPIDETZA KUOTA 95€

Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez

Kudeatzailea: Eider Aierbe Isasti

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

Anoetaidea: 687 410 022.

anoetaidea@ataria.eus

Ibarraldea: 687 410 118.

ibarraldea@ataria.eus

Alegialdea: 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus

Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

GABONETAKO GEHIGARRIA

Ez duzu zertan eskualdetik atera

Bertan ditugu Gabonak. Elkarri opariak egiteko garaia da, eta ATARIAk gehigarriro errepikatzen duen bezala, eskualdeak baditu milaka aukera; opari bereziak ditugu eskura edota egunerokoan beharrezkoak diren gailu edo produktuen eskaintza zabala. Ez duzu zertan eskualdetik atera behar opari bikainak erosi ahal izateko. Artea, barruko arropa, musika-tresnak, etxerako tresnak, lore-apaingarriak, arropa, jaki eta edari bereziak... guztia dago Tolosaldean, prezio onenean eta merkatari profesionalenen eskutik.

Gaur egun, ordea, badago beste joera bat: esperientziak edo zerbitzuak oparitzearena. Otordu bat oparitu daiteke, baina zergatik ez kontzertu batera joateko sarrera bat? Eta harago joanda, zergatik ez oparitu osasuna eta eskualdeko osasunaren inguruko profesionalengana jo? Eta are hobeto, zergatik ez oparitu euskara eta gertuko informazio profesionalena?

Zergatik ez oparitu ATARIA?



GABONETAKO GEHIGARRIA

Neurrian kontsumitzeko gakoak



Pertsona bakoitzak batez beste 370 euro gastatuko ditu oparitan. PEXELS.COM

Askotan, Gabonetan, behar dena baino gehiago kontsumitzen da. Hori ekiditeko eta modu jasangarrian kontsumitu ahal izateko hainbat gomendio bildu ditugu. Lehen pausoa erosketak aldeztetik antolatzea da, behar dena eta xahutu ahal den diru kopurua aurrez zehaztuta.

Espainia mailan egindako ikerketaren arabera, aurtengo Gabonetan diru gehiago gastatuko dugu opari, otordu eta bestelakoetan. Pertsona bakoitzak, batez beste, 796 euro gastatuko ditu, eta kopururik altuena opariei dagokie: 370 euro. Kopuru horretatik, Gabonzaharreko oparietan 178 euro gastatuko ditu pertsona bakoitzak, eta Errege Gauean, berriz, 192 euro. Otorduetan ere diru asko gastatuko dela dio ikerketa horrek: 132 euro. Loterian, berriz, 73 euro gastatuko ditu pertsona bakoitzak batez beste.

Saltokietan

Erosketa gehienak denda edo saltoki fisikoetan egingo direla ere esaten du ikerketak, % 11k bakarrik erosiko duenarik online. Erosketa horiek, batez ere, gizon gazteek egiten dituztela ere badiokerketak.

Inkestak agerian uzten du, halaber, inkestatuen % 52k aurreikusitakoa bai-

no gehiago gastatuko duela, eta % 40 estresatuta sentitzen dela erosketak eta opariak direla eta.

Datu horiek guztiak aurreikuspenak dira, eta datu zehatz bakarra zera da: 2025. urteko urtarrilean Cetelem Behatokiak Gabonetako kanpaina bukatuta egindako txostenean bildu zuela Araba, Bizkai eta Gipuzkoan pasaden urteko Eguberrietan pertsona bakoitzak 496 euro gastatu zituela batez beste.

Planifikazioa

Adituek diote Gabonetan modu jasangarrian kontsumitu ahal izateko planifikazio gehiago behar dela. Horregatik errepikatzen dute aurrez pentsatu behar dela zer erosi, eta oparien kasuan praktikotasunari erreparatu behar zaiola.

Horiek horrela, benetan behar dena erosteko aholkatzen dute; aprobetxatuko diren eta ordaindu ahal diren erosketen zerrenda prestatzea komeni da, horietarako aurrekontu bat zehaztuz, eta hori ez gainditzen ahaleginduz.

Horrekin batera, produktu guztiak leku eta saltoki berean ez erosteko aholkatzen dute, eta, ahal bada, erosketak aurreratzea gomendatzen dute, baita hainbat egunetan egitea ere, eta ez dena egun bakarrean.

Online erosketak murriztu

Saltoki fisikoak aukeratzea eta online erosketak murriztea aholkatzen dute. Era berean, eskudirutan ordaintzearen alde egiten dute, txartelarekin ordainduz gero, errazagoa baita kopuruari ez erreparatzea. Hala ere, zenbait erosketa online egin nahi izanez gero, aurreordainketako edo diru kopuru mugatua duten txartelekin ordaintzea gomendatzen dute, bankuko kontu korronteari atxikitako txartelarekin ordez.

Gabonetan egiten diren oparietako asko haur eta gazteei bideratutakoak dira, eta horien kasuan adituek diote jostailuen segurtasuna zaindu behar dela eta bideo-jokoen edukiak zein gomendatutako adinak kontrolatu behar direla.

Gabonetan opari asko egiten badira ere, ez da hori gastu bakarra, otorduetan diru asko xahutzen baita. Horri begirako hainbat gomendio egiten dituzte. Esate baterako, janaria izoztea aholkatzen dute Gabonen aurreko azken txanpan gehien garestitzen direnak elikagaiak baitira, batez ere, arraina. Menuak aurretiaz prestatuz, elikagaiak aste batzuk lehenago erosiz eta etxean behar bezala izoztuz, diru asko aurreztu daitekeela esan dute.

Kontsumo gehieneko unearen aurretik gauden zentzuz.

Gomendioak

1 Erosketak planifikatu.

Erosketak planifikatzea eta dena batera ez erostea komeni da; ez utzi erosketak azken ordurako. Horretarako, behar duzunaren zerrenda bat egitea komeni da.

2 Aurrekontu bat egin.

Aurrekontu bat egitea, gehiegizko eta beharrezkoak ez diren gastuak kontrolatzeko. Eskura dugun aurrekontura premiak egokitzea da funtsezkoa.

3 Txartelak tentuz erabili.

Txartelak zentzuz erabiltzea.

4 Otorduak antolatu.

Janaria aldeztetik erosi, eskaintzak aprobetxatu, eta Gabonak gerturatzen direnean garestitu ohi diren elikagaiak (mariskoa, haragia eta arraina) izozkailuan sartzea.

5 Jostailu egokiak erosi.

Jostailuak aukeratzeko, haurraren adina eta sexismoa saihestea kontuan hartu behar dira. Gainera, segurtasuna beti hartu behar da aintzat. Horretarako, ziurtatu behar da produktuak etiketatuta daudela, segurtasun-oharrak eta erabilerarako jarraibideak dituztela, baita CE marka ere.

6 Bideojoko egokiak erosi.

Bideojokoetan, PEGI Kodearen (Pan European Game Information) piktogramen esanahiari arretaz begiratu behar zaio. Logo horiek jokoa erabiltzeko gomendatzen den gutxieneko adinari eta edukiari buruzko informazioa eskaintzen dute.

7 Apaingarriak zaindu.

Gabonetako apaingarrien segurtasunari erreparatu behar zaio. Argizko girlandak erabili nahi badira, konexioak egoera onean daudela ziurtatu behar da.

8 Itzulketak.

Saltokiko itzulketa-politikaren inguruko informazioa izan behar dugu: itzulketak onartzen dituzten, zer epetan eta zer baldintzatan. Erosketaren tiketa edo faktura eskatu eta gorde behar da, produktua itzultzeko, erreklamazio bat aurkezteko edo bermearen onurak jasotzeko beharrezkoa baita. Komeni da publizitate-eskuorriak gordetzea ere, publizitatea loteslea baita.

GABONETAKO GEHIGARRIA



Bertako produktuen sortak, ardoz hornituak

Ahal dugun neurrian, sasoian sasoikoa kontsumitzen dugu, edo, behintzat, saiatzen gara. Ardoa urte osoan kontsumi badaiteke ere, udazkena eta negua izaten dira horretarako sasoi aproposenak. Gabonetan, ardo zuri, beltz edo gorri, cava nahiz xanpain botilak egoten dira otordu berezi guztietako mahaietan.

Hori ondo dakite Tolosako Belate auzoan dagoen Ardotea Tolosako Garazi Artetxek eta Maider Lopezek; ardoen erreferentziazko saltokia dute haiek. Egun seinalatuen atarian, bezeroen kopurua goraka doala nabaritu dute. Izan ere, inguruan ditugun supermerkatuetan topatu ezin ditzakegun kalitate goreneko ardoak eta edariak dituzte bertan; zenbait jaki ere badituzte, guztiak ere bertakoak, eskualdeko ekoizleenak nahiz Euskal Herrikoenak. Barazkiak eta itsasoko produktuak kontserban, esnekiak, txerrikiak, eztia edo olioia saltzen dituzte. Saltokiko produktuen artean aurki daitezke, besteak beste, Tolosako babarrunak, Ibarrako langostinoak, Errebelde sagardoak, Orexako gaztak edo Balerdipeko Erleak etxearen uzta.

Horiek horrela, Gabonetarako, ardoekin eta jakinekin sortak prestatzea eskatu diete zenbait bezerok. Urrian, esaterako, Donostian egindako kongresu baterako 475 sorta prestatu zituzten, produktu hauekin: ardoa, gazta, Añanako gatza eta zenbait gutizia. Egunotan askotariko sortak egiten ari dira upategiekin elkarlanean, batez ere enpresetarako eta herriko elkarte gastronomikoetarako. Herritar orok du aukera saltokira joan eta sortak nahi eran eskatzeko; bezeroen beharretara eta aurrekontura moldatzen dira bertan. Eta sortak etxera eramatea errazteko, zumitzezko saskietan edo kartoizko kaxetan biltzen dituzte edariak eta jakiak.

Ardotea Tolosa

Helbidea. Belate pasealekua 1 bis, behea (Tolosa).
Ordutegia. Astartetik ostiralera 09:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara. Larunbatetan 09:30etik 13:30era.
Telefono zenbakia. 943 506 638.
Instagram. @ardot3ka_tolosa



Begiak itxita hozka egiteko modukoa

Pasioa, lana, esperimentazioa eta kalitate oneko lehengaiak dira Xubero etxeko ezaugarriak. Txarkuteria produktuak egiten dituzte Ikaztegiatan duten lantokian, besteak beste, urdaiazpiko egosia, errea nahiz naturala, mortadela, indioilar bular egosia, txerri burua eta ukondoak; eta aukera zabala dute saltxitxa egosietan. Plazer handia ematen duten bekatu txikiak egiten omen dituzte.

Gabonak ate joka ditugunez, datozen egunetako otordu berezietan dastatzeko ezin aproposagoa den produktu bat dute: *Mikuia kutixi*, etxeko *foie gras*-a. *Mi cuit* frantseseko hitza da eta erdi-egosia esan nahi du. *Foie gras*-ek, berriz, gibel betea. Xuberon, gatza eta piperrarekin beratzen uzten dute gibel osoa. Tratamendu termikoa jasotzen du; hala, berezko propietate eta nolakotasun organoleptikoak mantentzea lortzen dute. Gantz gutxiago galtzen du, eta modu horretan burutzen duten pasteurizazioari esker, iraungitzea luzatzen diote.

Kolore argi dirdiratsua du mikuitak, arto kolorea nolabait esateko. Mikuita egiteko erabiltzen dituzten espezie, gatz, azukre eta ardoek, berezkoa duen usaina indartzen laguntzen diote. Haien gomendioa da oso txigortua ez den ogiaren gainean mikuit zatitxo lodia jarri eta begiak itxita hozka egitea.

Behin ere ez bi berdin

Sormena da Xubero lanaren ardatza: produktuen sekretuak ateratzea, pieza bakoitza ulertu eta bere onena ematea, bere ahalmen osoa bezeroen zentzumenetan islatzeko. Produktuak bikainki ezagutzen dituzte, eta artisauak dira; horregatik, behin ere ez dituzte bi produktu berdin egiten. Xubero jakia herri txikietako harategietan edota hirietako gourmet denda edo merkatu garrantzitsuetan daude eskuragarri.

Xubero artisau jakiak

Helbidea. Larrunbe 33 (Ikaztegieta).
Webgunea. Xubero.net
Whatsapp zerbitzua. 669 826 023.
Xubero produktuak eskuratzeko gertuen duzun saltokia zein den jakiteko, idatzi mezu bat.



Oparitu Gurdiko produktu saski bikaina

Gabonetako eskaintza berezi batekin dator Gurdi EHNELUR denda. Iaz egin bezala, aurreten ere, norberak bere saskia sortzeko aukera izango du.

Horretarako, erosle bakoitzak dendako produktu gustukoenak aukeratu beharko ditu soilik, eta ondoren dendako langileek osatuko dute saskia. Sorta biltzeko formatua aukeratutako produktuen arabera izango da.

Baserritarrentzat eta baserritarrengandik duela hogeitau urte baino gehiago sortutako denda da Gurdi, eta bere egiteko nagusia lehen sektorea bermatu eta mantentzea da. Horregatik, baserrirako produktuetan espezializatuak dauden arren –abeltzaintza, lorezaintza, baratzea edota ekoizpen ekologikoa–, edozein etxetan beharrezkoak diren produktuak ere aurkitu daitezke bertan.

Duten ezagutzarekin bezeroaren nahietara moldatzen dira, kalitatezko zerbitzu eta produktuekin; izan ere, esperientzia handiko langileak dituzte bezeroen zerbitzura.

Lehen sektore jasagarri bat sustatzen dute, zentzu sozial, ekonomiko eta ekologikoari erreferentzia eginez. Ez alferrik, Gurdiren misio nagusia lehen sektorea bermatzea eta mantentzea da, beharrezko produktu eta zerbitzuak prezio justuan eskainiz.

Duela 40 urte baino gehiago, zenbait baserritarrek EHNE Euskal Herriko nekazari eta abeltzainen sindikatua sortu zuten, baserritarren eskaerei eta beharrei erantzuteko asmoz. Sindikatua, denborarekin, handitzen joan zen, eta 1992an Ehneler kooperatiba sortu zen, zerbitzu oso eta lehiakor bat emateko helburuarekin. Irabazi asmorik gabeko enpresa bat dira, eta beren egunerokoan ezinbestekoak diren hainbat zerbitzu eskainiz herritarren beharrak asetzen dituzte.

Gurdi EHNELUR denda

Helbidea. Industrialdea 5A-5B pabiloiak (Anoeta).
Telefono zenbakia. 943 655 880 eta 606 340 630.
Webgunea. Gurdi.com
E-posta. gurdi@gurdi.com
Instagram. @gurdiehneler
Facebook. gurdi



GABONETAKO GEHIGARRIA

Etxean bertan egindako gozogintza

Duela bi urte hartu zuen Ixiar Gorostidik Saizar gozotegia-ren ardura, Tolosako Iurre auzoan. Ostalaritzan esperientzia izan arren, lehen aldia zuen gozogintza lantegi batean. Aurreko gozogileen eskutik ikasi zuten arduradun berriek ofizioaren sekretua. Haien erre-zetei jarraituz aritzen dira lantegian.

Bi urteotan ahalegin berezia egin dute gosarien eskaintza ugaritzen; gosari gozoak eta gaziak eskaintzen dituzte. Gozogintzari dagokionez, lantegian bertan egindako croissant, napolitana, madalena, bizkotxo eta mokadu bakarrean jateko pastelxoak egiten dituzte, baita % 100 gurinez egindako pastelak ere. Arrakasta handia dute bezeroen artean, bai gosaritan, bai askaritan.

Errege-opila da urte-sasoi honetako postre izarra; kremarekin, natarekin edo mistoa eskaintzen dute. Dagoeneko hasi dira oreak prestatzen, eta abendu hasieratik asteburuetan saltzen dituzte; hemendik aurrera, dendan bertan jasoko dituzte eskaerak. Banakako erre-



Ezkerrean Saizarren egiten duten limoizko tarta eta, eskuinean, pantxineta. ATARIA

ge-opilak izaten dira, pertsona baten-tzat edo birentzat egokiak.

Etxean egindako tartak eta pastelak ere eskaintzen dituzte Saizarren, eta arrakasta handia dute pantxinetek eta limoizko tartek. Etxean egindako hos-

torearekin egiten dute pantxineta, eta limoizko tartak Xixonako turroi zatiak daramatza barruan eta gainetik txigortutako gorringoa eta fruituak. Telefonoz eskaerak eginda, moduzko prezioan saltzen dituzte hauek, baita trufa


Saizar gozotegia

Helbidea. Iurre Auzoa 14 (Tolosa).

Telefono zenbakia. 943 671 649.

Ordutegia. Astelehenetik ostiralera 07:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Larunbata eta igandeetan 07:30etik 14:00etara.

zuriko eta trufa beltzeko pastelak eta ijito-besoak ere.

Eguberri hauetan Saizar gozotegiko bost laguneko lantaldeak jarraituko du herritarrak gozatzen etxean egindako produktu gozoekin.

Casa Eceizatik gure postre eta turroiekin Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu.



GABON
GOZOAK



Eguberri on!



casaeceiza.com

GABONETAKO GEHIGARRIA

Edertasuna bere osotasunean

Hiru hamarkada baino gehiagoko ibilbidean, Ana Soto Estetikak artisautza, esperientzia eta teknika berriak uztartzen ditu. Espezializazio bakoitza arreta pertsonalizatuan eta zehaztasunean oinarritzen dute, emaitza fidagarriak eta egonkorak lortzeko. Eta, horrez gain, makillaje profesionalen espezialistak dira.

Hiru hamarkada baino gehiagotan zehar, Ana Soto Estetikak dedikazioak, iraunkortasunak eta edertasunaren aldeko apustuak markatu-tako ibilbidea sendotu du, non teknika eta artisautza modu naturalean uztartzen diren. Ana Sotok 34 urteko esperientzia du edertasunaren arloan, eta eskuzko zaintza, zehaztasuna eta xehetasunekiko gustua lehenesten dituen lan egiteko modu batean oinarritzen da, estetika praktikotik, arretatik eta hurbiltasunetik eraikitako lanbidetzat hartzen duen filosofia bizirik mantenduz.

Mikropigmentazioa nabarmentzen da bere espezialitateen artean. Dermografo elektriko egiten duten teknika erdi-iraunkorrek aukera ematen du itzalak sortzeko, bolumena emateko eta bekainak zein eyeliner-a definitzeko, emaitza biziagoa eta iraunkorragoa emanez. Harekin batera, microblading teknika ere eskaintzen dute. Arinagoa da, eta eskuz egiten da Tebori luma batekin; horrela, ile naturala simulatzen duten trazu fin-finak lortzen dituzte.

Bi aukera horien helburua aurpegiaren itxura nabarmen hobetzea da, betiere, pertsona bakoitzak nahi duen emaitzara egokituta: naturaltasun handiagoa microblading-aren bidez, edo efektu zehatzagoa mikropigmentazioaren bidez. Iraupena eta mantentzea hainbat aldagairen arabera dira, hala nola, eguzkiarekiko esposizioa, larruazal-mota edo erabiltzen diren kosmetikoak; nolana ere, aldizkako ukituak gomendatzen dituzte emaitza iraunarazteko.

Puntako laser-teknologia

Zentroak diodozko LightSheer laser-teknologia ere erabiltzen du: ilea pixkanaka kentzeko sistemarik ezagunetako bat. 800 eta 810 nanometro arteko uhin-luzerak aukera ematen du sakonean lan egiteko eta larruazaleko fototipoak segurtasunez eta eraginkortasunez tratatzeko.

Kontaktu bidezko hozte-mekanismoak epidermisa babesten du prozesuan zehar, eta erosotasuna areagotzen du, min-sentsazioa eta albo-ondorio posibleak murriztuz. LightSheer nagusitu egin da behin betiko depilazioaren barruan potentziaren, doitasunaren eta fidagarritasun klinikoaren konbinazioari esker, eta aukera ematen du kasu bakoitzari egokitutako tratamenduak garatzeko.

Zerbitzu integrala

Ana Soto Estetikak barne hartzen dituen beste arlo batzuk nutrizio integratiboa eta kinesiologia dira. Diziplina horien abiapuntua da elikadurak, bizi-ohiturek eta egoera emozionalak eragin zuzena dutela pertsonaren oreka orokorrean. Terapietan bi hamarkadako esperientzia izan ondoren, ikuspegi hori zentroko lanaren zutabe bihurtu da.

Nutrizioa oinarri biokimiko gisa erabiltzen da aldaketa iraunkorrek errazteko; eta kinesiologiak, berriz, eguneroko bizitzan eragina duten blokeo emozionalak eta estres-egoerei aurre egiteko aukera ematen du. Biak konbinatzearen helburua da energia erregulatzea, ongizatea hobetzea eta kanpoko alderdian oreka hori islatzea; hain zuzen, ulertzen dutelako larruazalak barne-faktoreak ere islatzen dituela.



Ana Soto Estetika Zentroa

Helbidea.

San Frantzisko pasealekua 35 (Tolosa).

Telefono zenbakia.

615 730 349.

Instagram.

@anarendizdira

Tiktok.

anarendizdira



Talde profesionala

Zentroa gidatzen duen filosofiak bere lan egiteko modua laburbiltzen du: edertasuna ez da fabrikatzen; sortu egiten da dedikazioz, sentimenduez eta pasioz. Zerbitzu eta esku-hartze bakoitza abiapuntu horretatik garatzen dute, artisautza-ikuspegi mantenduz, baita teknologiek protagonismo handia hartu duten tes-tuinguruan ere.

Taldea hainbat arlotan espezializatutako profesionalek osatzen dute: Nely Huarte, mikropigmentazioan; Susana Ursua, laser-teknikari gisa; Ana Soto, makillatzaile eta irudi-aholkulari gisa; eta Maialen Mujika, kinesiologoa. Egitura horrek aukera ematen du estetika eta ongizatea ikuspegi osagarrietatik lantzeko, teknika, esperientzia eta arreta pertsonalizatua bateratuz.

Aipatutako guztiaz gain, esperientzia zabal-dute ekitaldiak antolatzen, eta askotan egin dute lan ezkontzetan, desfileetan eta antzekoetan. Hori gutxi ez, eta espezializatuta daude makillaje-ikastaroetan ere.

Edertasunean artisau

Eskuz egindako lanaren balioak, teknologia-ren erabilera neurtuak eta espezialitateen baturak osatzen dute bere esentzia galdu gabe eboluzionatu duen zentroa. Taldearen eguneroko dedikazioari eta jarraikortasunari esker, Ana Soto Estetikak estilo propioa mantendu du denboran zehar, tratamendu bakoitzaren zehaztasunean, hurbiltasunean eta zaintzan oinarrituta.

GABONETAKO GEHIGARRIA

Gure burua
zaintzeko
opari onena

Gainean ditugu Gabonak. Datozen egunetan ilusioak gainezka egingo du askoren sentimenduetan, eta ingurukoekin nahiz urtean zehar gertu izaten ez ditugunekin otorduak egiteko eta ondo pasatzeko elkartuko gara. Baina, zergatik ez ditugu egun hauek aprobetxatzen gure burua zaindu eta goxatzeko? Izan ere, zaintzen duguna eta egiten duguna nabaritu egiten da.

Aurtengo Gabonetan zure buruari momentu atsegin eta goxo bat eskaini nahi badiozu, edo oparitzeko ideia bereziren baten bila bazabiltza, Tolosako Nafarroa etorbideko Onditz estetika zentroan topatuko duzu opari onena. Esperientzia handiko zentroa da, eta Onditz Aiestaranek kalitatezko estetika zerbitzu integrala ematen du. Harremana gertukoa da, goxoa eta profesionala. Helburua da bezeroa eroso sentiaraztea, eta jasotzen duen zerbitzuarekin pozik geratztea.

Askotarikoa da zentroak duen eskaintza: aurpegia, gorputza, eskuak eta oinak zaintzeko tratamenduak, masaje lasaigarriak, depilazioa, solariuma eta manikura nahiz makillaje saioak. Aurpegiko tratamenduen kasuan, garbiketa eta hidratazioa lantzen ditu gehien Aiestaranek; gorputzekoen kasuan, berriz,

Onditz estetika zentroa

Helbidea.

Nafarroa
etorbidea 1-behea
(Tolosa).

Telefonia.

943 968 993.

Webgunea. Onditz.eus



masaje lasaigarriak eta tratamendu antizelulitikoak. Zerbitzu horiez gain, argizari eta laser bidezko depilazioa egiten du, solarium zerbitzua du, eta egun arrunt zein berezietarako makillajea, manikura eta pedikura egiten ditu.

Azalak dituen behar guztiak lantzen ditu Aiestaranek, hala nola hidratazioa, C bitamina, oxigenoa, zelula-berritzea, nutrizioa eta argitasuna. Etxean azala behar bezala zaintzen jarraitzeko osagaiak ere saltzen ditu: azala garbitzeko gelak eta esneak, esfoliatzaileak, antizelulitikoak, hidratatzaileak, kremak eta makillajerako osagaiak. Jarraibide eta gomendio egokiak ere ematen dizkio bezero bakoitzari, etxean tratamenduarekin jarraitzeko aukera izan dezan.



ma|al

ESTETIKA

AURPEGIKO TRATAMENDU ORGANIKOA + HEAD SPA
BIODROGA ORGANIC INSTITUTE-ko linea organikoa.

@estetika_maial

943 674 193
 747 436 240

Euskal herria kalea 12.
IBARRA

ataria
bertso
2026 jaialdia



- Andoni Egaña • Maider Arregi
- Sustrai Colina • Nerea Ibarzabal
- Xabat Illarregi • Onintza Enbeita
- Gai jartzailea: Amaia Agirre

SARRERAK online
astelehenetik aurrera:
tickets.kutxabank.es

Urtarrilak 17 • LARUNBATA
18:00 • Tolosako Leidor antzokia

GABONETAKO GEHIGARRIA

Parekorik ez etxetresna elektrikoetan

Tolosako El Rincón del Electrodoméstico denda sekulako eskaintza du etxetresna elektrikoetan. Batetik, tamaina handikoak, hau da, hozkailuak, garbigailuak eta lehorgailuak. Bestetik, tamaina txikikoak: aire-frijigailuak, ile-lehorgailuak, plantxak eta abar.

Marka ugari eta lehen mailakoak dituzte etxetresna elektriko berrietan, hala nola, Beko, Siemens, Bosch, AEG, Zanussi edo Balay. Modu horretan, kalitatezko aukerak bermatzen dizkiete bezeroei. Horrez gain, ostalaritzarako makinak ere saltzen dituzte.

Etxetresna elektriko zein ostalaritzako makina berrietan eskaintza zabala dute, eta hiru urteko fabrikako bermea ematen dute. Aldi berean, eskaintza bereziak egiten dituzte urte osoan zehar. Bestetik, outlet produktuak ere saltzen dituzte.

Produktuak etxera edo ostalaritza lekura eramateko zerbitzua du El Rincón del Electrodomésticok, eta dendan bertan jasotzeko aukera ere ematen du. «Segituan entregatzeko aukera dugu, egun batetik bestera, eta prezio erakar-



garriekin», nabarmendu dute. Era berean, ordaintzeko hainbat aukera daukela jakinarazi dute, tartean kreditu eta zordunketa txartelak edota NFC mugikor-ordainketak.

Eskaintza bereziak

Eskaintza bereziak eta eskuragarri dauden produktuak salmenta plataformen bidez (Wallapop-en bidez, adibidez) eta

sare sozialen bidez (Facebook eta TikTok) zabaltzen ditu dendak. Hori bai, aurrez aurreko edo zuzeneko harremanaren bidez ixten da salmenta.

Konponketa-zerbitzua da dendaren ezaugarri bereizgarrietako bat. Gipuzkoa eta inguruak artatzen dituzte, bai etxetresna elektrikoetan zein ostalaritzako makinetan, eta dendan erosi ez diren tresnak ere konpontzen dituzte.



El Rincón del Electrodoméstico Tolosa

Helbidea. Gipuzkoa Plaza 1 (Tolosa).
Telefono zenbakia. 943 886 437.
Konponketak. 669 955 756.
Facebook. Rincon Tolosa del Electrodomestico
Tiktok. el.rincn.del.elec2

Gainera, larrialdi zerbitzua dute, eta asteburuetan ere aukera dute zerbitzu hori emateko. Horregatik, zerbitzu osoa ematen dute: salmenta, etxera eraman eta martxan jarri, eta konponketak.

Bezeroekiko arreta zaindua du El Rincón del Electrodomésticok, eta argi dute bide horretan jarraitu nahi dutela. Hori horrela, jasotako arreta positiboki baloratu dute bezeroek.

KATALOGOA

www.erlea.eus




Euskelelea liburua



Euskelelea CDa



Xirribit liburua



SUBH Cd liburua



Zubinea EPa



OLENTZERO eta MARI DOMINGIrekin KALEJIRA

abenduak 24

11:00etan, Arroako plazan

Olentzerorekin batera herria kantuz alaituko dugu! Mari Domingi, Galtzagorriak, Ikazkinak... ere bertan izango ditugu.

Amalur plazan amaituko dugu ibilbidea. Bertan Olentzerorekin hitz egiteko eta gutunak emateko aukera izango da.

Kantari ateratzeko www.labur.eus/ABENDUAK24KANTUZ
edo QR honetan topatuko duzuen formularioan eman behar da izena:



Izena ematen dutenek doako pintxoak izango dute.



ZUNBELTZ
antzerki taldea



AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala

GABONETAKO POP UP AZOKA

22, 23 10.00-14.00
17.00-20.00
24 10.00-14.30



Antolatzailea:
ekinArt

Gurea Antzokiko erakusketa gela
VILLABONA

**ARTISAUAK
TAILERRAK**

GABONETAKO GEHIGARRIA

Eskarmentua eta gertutasuna

Eizmendi Kirolak dendak 60 urte bete ditu aurtan, eta gaur egun bigarren belaunaldiak du dendaren ardura. Villabonan oso errotuta dagoen komertzioa da, bezeroak ezagutzen dituztelako eta dendariak ere aski ezagunak direlako herrian. Agerikoa da, hortaz, Eizmendi Kirolak dendak duen eskarmentua, eta hori berme handi bat da bertara erostera joaten denarentzat: bikain artatuak izango dira, dendariak pilatutako eza-gutzarekin jantzitako aholkuekin. Dendan dauden produktuak ongi ezagutzen dituzte, eta kalitatezkoak direla ziurtzen dute.

Dendaren beste ezaugarri nagusia, aurrekoarekin bat datorrena, gertutasuna da. «Jendeak badu aukera produktuak etxera eramateko probatzera. Hori ez du beste inork egiten», azaldu du Nerea Eizmendi dendako arduradunak. «Bezeroak izenez ezagutzen ditugu, eta opari bat erostera baldin badator, askotan badakizu zeinentzako den, eta aholku hobea ematen diozu. Internetek ez du horrelako zerbitzurik eskaintzen». Era berean, bezeroari entzuteko garrantzia nabarmendu du:



«Asko galdetzen diegu zer nahi duten jakiteko, eta horren arabera bakoitzarentzat egokiena izan daitekeena eskaintzeko». Kirol asko lantzen dituzte Eizmendi Kirolak dendan: pilota, trekking (mendian ibiltzea), igeriketa, futbola... Produktuak ere askotarikoak dituzte: arropa, oinetakoak, makilak,

motxilak, buffak, Elozegi txapelak, etxeko zapatilak... Mendiko edo trekking zapatilen arloan marka ezagunekin egiten dute lan, besteak beste, Merrell, Mizuno, Joma, Salomon eta Chiruca. Kirol arropetan, adibidez, Kot, CMP, Joma, Ternua, Rock Experience eta Altus markak dituzte.



Eizmendi Kirolak

Helbidea. Kale Berria 19-21 (Villabona).

Telefono zenbakiak. 943 692 623 eta 688 844 983.

Webgunea. Eizmendikirolak.com

Facebook. Eizmendi Anaiak Kirolak

Instagram. @eizmendianaiak

Eizmendi dendakoek, beren gertutasunean eta eskarmentuan oinarrituta, denda barrura lasai asko sartzeko gonbita egiten dute: «Sartu denda barrura lasai eta begiratu zer dagoen. Ez baduzu ezer interesgarri ikusten, ez da ezer gertatzen. Gure nahia da jendeari ahalik eta zerbitzurik onena ematea».

Eroso eta goxo sentitzeko

Duela 25 urte zabaldu zituen atea Mugar Lentzeria dendak. Tolosako Nafarroa etorbidean dago kokatuta, eta barruko arropetan, bainujantzietan edota pijametetan neurri guztiak ditu eskura. Erosotasunari eta goxotasunari garrantzi berezia ematen diete, eta pertsona bakoitzak dituen arazoei aurre egiteko egokiturik dauden arropak ere saltzen dituzte. «Bularreko arazoak dituztenen beharretara egokitzen saiatzen gara, eta protesia edo minbizia duten pertsonentzako bularretako bereziak saltzen ditugu».

Neurrietan ere A-tik G-rako kopekin lan egiten dute, pertsona bakoitzak dituen arazoei irtenbide bat eman ahal izateko. «Bularretakoen kasuan, pertsona bakoitzak dituen beharretara egokitu-takoak saltzen ditugu; esaterako, Anita Care etxekoak, minbizia dutenen kasuan».

Gainontzeko markei dagokienez, eskaintza zabala dute dendan: Calvin Klein, Punto Blanco, Marie Jo, Signoretta, Massana, Chantelle, Sportex eta Janira, besteak beste. Gaur egun barruko arropan ezagunenak eta kalitate onekoak diren etxeekin lan egitea gustatzen zaie.



«Primadonna bezalako markak ere saltzen ditugu, eta hauek ekitaldi berezietan erabiltzen diren jantzietara egokitzen dira, hala nola ezkontzak, bataioak edo jaunartzeak».

Garbiñe Murillok, Reyes Peguerok eta Maria Malkorrek kudeatzen dute denda, eta bertara gerturatzen diren

bezeroekin zuzeneko eta gertuko harremana sortzen dute. «Gure bezeroak behar ezberdinengatik hurbiltzen dira dendara, eta ahalik eta arreta gertuko eta onena ematen saiatzen gara beti».

Tolosan tokiko merkataritza babesteko eta hori kalitatez eskaintzeko helburuarekin, etxeko etxeko zerbitzua



Mugar Lentzeria

Helbidea. Nafarroa etorbidea 16, (Tolosa).

Ordutegia. Astelehenetik larunbatera 09:30etik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara.

Telefono zenbakia. 943 655 685.

E-posta. garbimurillo@gmail.com

Webgunea. Tolosandco.org

Instagram. @mugar_lenceria_tolosa

ere eskaintzen dute Gogoko komertzio txikiaren erakusleio digitalaren bidez. Horretarako interesa duten bezeroek 688 750 783 telefono zenbakira idatzita eta erosi nahi dutena aipatuz egin ahalko dute erosketa, eta hurrengo egunetan erosi duten produktua etxera iritsiko zaie.

GABONETAKO GEHIGARRIA

Oihanartean: grabatuak eta artelanak

Az zabaldu zuen Oihana Ugartek lokala Tolosako Plaza Zaharrean. Ikasturtean zehar Gipuzkoa osoan zehar ibiltzen da grabatu ikas-taroak eskaintzen, eta asteburuetan, ostiraletan eta larunbatetan zabaltzen du denda. Eguberrietan, ordea, astelehenetik larunbatera irekiko du, ikasturteko Gabonetako etenaldia aprobe-txatuta.

Aspaldiko diziplina da grabatua, eta teknika asko landu izan ditu Ugartek: hasi txinatarrek V. mendean sortzen zituzten egur gaineko xilografietatik, Erdi Aroan garatutako kobre gaineko akuaforteetarako. Azken teknika hori Debako Arte Eskolan ikasi zuen. Herriz herriko jabetze eskoletan, nagusiki, linoleum materialaren gaineko xilografia erakusten die parte hartzaileei.

Gertuko paisaiak grabatueta

Tolosako Alde Zaharreko dendan berak egindako artelanak ditu ikusgai eta salgai, urteotan sortutakoak denak. Askotariko motiboak topatuko ditu erosleak grabatueta: aurpegiak, naturako ele-



Tolosako Plaza Zaharreko dendan saltzen ditu Ugartek artelanak. ATARIA

mentuak edota espazioak irudikatzen dira horietan.

Tolosako hainbat estampa tipiko biltzen dituzten lanak ere badituzte Oihanartean-en: Izaskun auzoko Sputnik etxeen -akuaforteak- eta Zerkausiaren -linoleumak- inguruko serieak, adibidez. Lan horietatik eratorritako hozkailuetarako itsasgarriak ere prestatu ditu

Ugartek, eta, oraingoz, ilusio handiz hartu dituzte herritarrek; bertakoek eta baita kanpoan bizi eta oroigarri bezala eraman nahi duten tolosarrek ere.

Artisau eran egindako papera erabiltzen du Ugartek artelanetarako, eta marko eta guzti saltzen ditu. Gehienak zuri-beltzean egindakoak dira, baina baditu koloreztatutakoak ere.


Oihanartean

Helbidea. Plaza Zaharra 10 (Tolosa).

Telefono zenbakia. 649 645 897.

Ordutegia. Astelehenetik ostiralera 10:30-13:00 eta 17:00-20:00.

Larunbatetan 10:00-13:30.

Instagram. @oihanartean

Gabonetarako opari aproposak topatuko ditu bisitariak dendan, baina horrekin batera, grabatu bakoitzaren atzean dagoen sormen prozesuaren inguruko azalpenak ere jasoko ditu Ugarteren ahotik; erreprodukzio digitaletara ohituta gauden garaiotan, bakanak diren artelan hauen balioa deskubrituko du Oihanartean-en.



• JOSTAILUAK
• MAHAI JOKOAK

• HAURREN MOTXILAK
• GOXOKIAK

• KAFEAK
• GOZOAK



Oria kalea 12, TOLOSA • 680 17 25 22

GABON ETAKO TON-TON TONBOLA

Abenduaren 20tik urtarrilaren 5era

Egin erosketa, ireki boletoa eta irabazi sariak!
Denda bakoitzean 3 sari ezkutatu ditugu.



GABONETAKO GEHIGARRIA

Urubi, denontzako
espazio segurua
eta gertukoa

Txakur heziketan esperientzia luzea du Xabier Moiuak. 20 urte baino gehiago daramatza *Labrador Retriever* arrazako txakurrekin Espainiako txapelketetan parte hartzen, eta horietako hainbatetan garaile izaten, baina pasio hori askoz harago doa. Tolosako Kale Nagusian dagoen Urubi dendako arduraduna da, eta Ainhua Vela lankidea-ekin eta Sombra, Kenia eta Negan bidelagunekin batera aritzen da bertan. Txakurren munduarekin loturiko material ugari saltzen dute, eta iaz bezala, Gabon hauetarako Opari Kaxa izeneko eskaintza ere zabaldu dute. Modu horretan, bezeroek dendako produktuekin bete dezakete kaxa.

Urubin, txakurren ongizatean eta zaintzan espezializatuta daude, haien bizi kalitatea hobetzeko eta familiarekiko lotura sendotzeko. Horretarako, zerbitzu sorta zabala eskaintzen dute. Horietako bat txakurrei heziketa on bat eman ahal izateko edota egunerokotasunean arazoak eman ditzaketen jokatibideak zuzentzeko heziketa zerbitzua da. Hori guztia modu pertsonalizatuan egiten dutela azaldu du Moiuak: «Bezeroei eskaintzen diegun arreta pertsonalizatua da, eta asko inplikatzeko gara kasu bakoitzean. Horretarako, dendara etortzen den maskota

Urubi**Helbidea.**

Kale Nagusia 3 (Tolosa).

Telefono zenbakia.

943 671 866.

Ordutegia.

Astelehenetik ostiralera
10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:30era,
eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara.

Webgunea.

urubitiendayededucacioncanina.com

E-posta.

urubi13@gmail.com

Facebook. Xabier Urubi Tienda Moyua**Instagram.** @urubitiendayededucacioncanina

gurea balitz bezala zaintzen dugu». Horrez gainera, bi laguntza talde dituzte laguntza gehigarri gisa. Alde batetik, *Retriever* arrazako txakurrekin osatutako taldea dute, eta, bestetik, usaimena lantzeko taldea dute, ikuspegi ludiko-terapeutiko batetik. Doako etxeko zerbitzua ere eskaintzen dute, eraginkorra, malgua eta bezeroen erosotasunerako pentsatuta.

Musikazaleei
egokitutako denda
eta eskola

Ibarran dago Tarukutraku musika denda eta eskola. Enrike Rubiños da bertako arduraduna: hainbat taldetan bateria jotzaile eta perkusionista aritutakoa, eta musika irakasle moduan eskarmentu handikoa. 2017an jarri zuen abian Tarukutraku, eta oso garbi du zein den proiektuaren esentzia: «Dendara instrumentu bat erostera zein eskolara ikastera etortzen direnen beharretara moldatzen gara».

Hiru adar nagusi ditu eskolak. Batetik, perkusioari dagokiona, eta hor bateria eta kaxa erakusten dituzte; eskaria dagoenean, kajoia ere bai. Bestetik, gitarra eta baxua. Hirugarren adarra haurrentzako tailerra da. «Azken horretan hainbat instrumentu erabiltzen dira, eta saiatzeko gara kanta errazak egiten». Bost eta zazpi urte bitarteko haurrek parte hartu ohi dute tailerrean. Beste ikasgaietan ez dago adin mugarik.

Haurren tailerrari dagokionez, adin horietan interesgarriena haurrak musikara lotzea dela dio Rubiñosek. «Jolasen bidez belarria lantzen dute, eta beraien artean abestiak jotzeak belarria asko zabaltzen die». Instrumentu bat ikasteko garaian, ikasleari egokitzen zaizkio Tarukutrakun. «Ez dago aurretik musika jakin beharrik. Beharren arabera, pixkanaka goaz sakontzen. Praktikan oinarritzen gara musika irakasteko». Norbait Tarukutrakura musika instru-

Tarukutraku**Helbidea.** San Inazio

4-behea (Ibarra).

Telefonoa. 626 561 845.**Facebook.** Tarukutraku**Instagram.** @tarukutraku**Tiktok.** Tarukutraku

mentu bat erostera joaten denean, lehenengo galdera beti bera izaten da: «Zer aurrekontu duzu eta zertarako nahi duzu tresna?». Rubiñosek argi du dendaren filosofia: «Bezeroari aholkatuko diogu bere beharrak betetzeko, behar baino gehiago gastatu gabe. Noski, instrumentuak beti dira kalitatezkoak, eta norbaitek kapritxo berezirik badu, horretan ere lagunduko diogu». Garrantzi berezia ematen dio gertuko aholku zerbitzu horri, Internet bidez erosita lortu ezin dena.

Marka ezagun gehienekin lan egiten dute. Dendaren espazioa mugatua da, eta ez dute stock handia izaten, baina eskariak egiteko aukera zabala dute, eta egun gutxi barru iristen dira. «Tresna etortzean, probatzeko aukera ematen dugu. Ez bazaio gustatzen, ez dago arazorik, uzten du eta beste zerbaite eskatu dezake».

BADATOK EUSKARAZKO JOLASAK!

Hemen duzu gure dendetan topa ditzakezun euskarazko jolas hezitzaileen gida. Haurrak jolasten jartzea dugu helburu, baina neska-mutilen heziketan eta garapenean lagunduz, aldi berean.

www.jolasak.eus

GABONETAKO GEHIGARRIA

Euskal kultura soinean

Andia markako neguko denboraldiko bilduman, Euskal kulturarekin lotutako elementuekin egindako diseinuak topatu daitezke. «Kultura da gakoa herri bizia izateko» esaldia ageri da diseinu guztietan.



Aurtengo neguko bildumarako sortutako diseinuak.



Euren dendetan saltzeko berezko zerbaiten beharrak bultzatuta, duela lau urte sortu zuten Andia Kimetzeko arduradunek. Euskal kulturarekin lotura handia izango zuen zer-bait nahi zuten, eta egin zituzten lehen kamiseta eta jertseetan Tolosako elementu bereizgarrienak irudikatu zituzten.

Horien artean zeuden, Zerkausia eta Andia dorretxea irudikatzen zituztenak eta Tolosa Gipuzkoako hiriburu izan zela gogoratzen zuena. «Herriko elementu horiei nolabaiteko omenaldia egin nahi izan zaie modu horretan, eta horrek, era berean, Andia nortasuna ezarri zuen», azaldu du Juanjo Ruiz Kimetzeko arduradunetako batek.

Gaur egun, Tolosako txoko nabarmenekin diseinuak egiten jarraitzen dute, baina ikuspegia zabaldu egin dute. Izan ere, Euskal Herriko kulturarekin lotutako elementuekin egiten dute jolas, diseinu berriak sortzerakoan. Aurtengo neguko bildumarako erabili duten esaldiak argi uzten du kulturak eurentzat eta Andia nortasuna duen lekua: «Kultura da gakoa herri bizia izateko». Jantzi guztietan ageri da esaldi hori.

Kolaboratzaileak ere izaten dituzte, eta azken bildumarako bi izan dituzte. Batetik, Gotzon Huegun eskultore lasartearra. «Gotzon bera jarri zen harremanetan gurekin. Laminak egiten hasi zen, eta horiek kamisetetan ikusi nahi zituen. Horrela hasi zen bion arteko elkarlana», kontatu du Ruizek. Artistaren eskultura batean oinarritutako *Norabide guztiak* izeneko da elkarlan horren fruituetako bat.

Argilunak izeneko ere beste adibide bat da, eta kasu horretan, Huegunen parte-hartzeaz gain, *Komorebi produkzioak* ere izan dute bidelagun. Tolosarekin badu lotura diseinu horrek; izan ere, Komorebik sortutako ikuskizuna bertan estreinatu zen joan den ekainean.

Kolaborazio horiez gain, azken bilduman Andiak berak sortutako lau diseinu berri ageri dira: «Euskal Herrian amona esateko hamaika modu daude, eta

hori islatzen du diseinu batek. Jendeari asko gustatzen ari zaio. Gero, *Harrineska* izeneko dago, 'Kultura da gakoa herri bizia izateko' esaldia duena, eta Augariz osatutakoa».

Nabarmenezkoa da jantzi guztiek txarteltxo bat dutela, non diseinuaren esanahia azaltzen den.

Kamiseta eta jertseaz gain, Andia etxearekin galterdiak, txapelak eta telazko poltsak ere egiten dituzte, eta horietan ere azken diseinuak sartzen dituzte. Eta, bada, beraiek sortu duten beste produktu bat ere: Kimetz aire-freskagarria. «Te berde usaina du, guk dendetarako erabiltzen dugu, eta baita oparitarako paperean ere. Oso harrera ona izaten ari da».

Andia markako produktuak Tolosako dendan eta



Kimetz ANDIA

Euskal kulturarekiko sentsibilitatea duten
pertsonentzat sortzen dugu

Kimetz

Dendak (Tolosa).

Kale Nagusia 8: Mutilentzako arropa.

Kale Nagusia 21-23: Neskentzako arropa.

Korreo kalea 35: Mutilentzat eta neskentzat arropa. Andia produktuak.

Kale Nagusia 26: Biltegia, erakusleirioa eta ikastaroetarako gunea.

Webguneak. kimetz.eu eta andiaandia.eus

Instagram. [@kimetz.eu](https://www.instagram.com/kimetz.eu) eta [@andia.arropa](https://www.instagram.com/andia.arropa)

E-posta. kimetz@kimetz.eu

Telefono zenbakiak.

943 571 840 / 943 673 862 / 943 094 849.

webgunean saltzen dituzte. Berriki, Tolosako dendari beste euskarri fisiko bat gehitu zaio: Iruñeko Karrikeri. «Euskararekin oso lotuta dago, eta saltzen duten guztia euskarazkoa da. Bada, gurekin harremanetan jarri ziren, eta orain bertan ere badaude Andia produktuak».

Tolosako Alde Zaharrean hiru denda ditu Kimetzek. Kale Nagusiko 8an mutilentzako arropa dute; kale bereko 21-23an neskentzako arropa, eta Korreo kaleko 35ean neska eta mutilentzako arropa. Azken honetan daude Andia jantziak eta osagaiak.

Horiez gain, Kale Nagusiko 26. zenbakian laugarren lokala ere badute. Biltegi nahiz erakusleirio gisa erabiltzen dute, eta tarteka ikastaroak antolatzen dituzte. Esaterako, bi hilabetez behin edo, *personal shopper* bat etortzen da.

Harro egoteko modukoa

Herrian egonkortuta dago Kimetz. Ez alferrik, 31 urte daramatzate Tolosako, eskualdeko nahiz eskualdez kanpoko herritarrek jantzen.

Andiak ez du hainbesteko ibilbidea, baina ari da bere bidea egiten. «Oso harrera ona izan du. Tolosan paseoan jendea Andia arroparekin ikusteak poz handia ematen digu. Baina, ez da Tolosara mugatzen. Izan ere, Internet bidez Euskal Herri osotik erosten dute, batik bat Bizkaitik eta Nafarroatik».

Kimetzeko arduradunek diote harro egoteko modukoa dela hori, «ez baita gauza bera jendea kate handi bateko jantziekin ikustea edo guk egin ditugun kamiseta edo jertseekin». Horrek gauza berriak sortzen jarraitzeko indarra ematen die.

Horren erakusle da dagoeneko prest dituztela otsailan merkaturatuko dituzten lau diseinu berri. Euskal Herriko kulturarekin lotutakoak izango direla aurreratu du Ruizek.

Gabonak '25



E G I T A R A U A

GABONETAKO EKITALDIAK

Abenduak 18

Lask abesbatza
Kontzertua
Arrameleko eliza - 19:30

Abenduak 19

Eduardo Mocoroa Musika Eskola
Kontzertu solidarioa
Topic - 18:30 - Sarrera: 5€
Isidro Larrañaga Musika Eskolako taldeak
Kontzertua
Leidor Aretoa - 19:00

Abenduak 20

Gabonetako azoka berezia
Trianguloa / San Frantzisko / Alondegi plaza - 09:30-14:00
Denden azoka
Antolatzailea: Tolosa&Co
Denda bakoitzaren atarian
Egun osoan zehar

Abenduak 21

Hodeiertz Abesbatza eta Arimaz Orkestra
Gabonetako kontzertua
San Frantzisko eliza - 19:30

Abenduak 22

Eduardo Mocoroa Musika Eskola
Gabonetako kontzertua
Musika Eskolako areto nagusia
19:00

Abenduak 22-23

Gabonetako pertsonaien maskara tailerra
Antolatzailea: Topic
Topic - 09:30-12:30
Adina: +6 urte

Abenduak 22-Urtarrilak 4

Gabonetako merkatu txikia
Antolatzailea:
Laskorain Ikastola
Kultur Etxea
10:00-13:00 / 17:00-19:00
* Irabaziak Tolosaldea
Sahararekin, Zutani eta
Ibarratik Misio Taldearentzat
izango dira

Abenduak 24

Gabon kantak
Ikastetxeetako haurrak
Plaza Zaharra - 11:30
Herriko taldeak
Arratsaldean zehar kalez kale
Olentzero eta Mari Domingiren etorrera
Harrera
Gure Zirkua - 10:30-13:30
Kalejira
Plaza Zaharra - 18:00
Tolosako Udal Musika Banda
Kontzertua
Zerkausia - 12:00
Kalejira
Gorriti plaza - 19:30

Abenduak 28-30

Gabonetako haur parkea
Zerkausia
11:00-14:00 / 16:00-20:00

Abenduak 30

Ilustrazio zientifikoko tailerra
Tolosako Haur Liburutegia
11:00-12:30 - Adina: 7-10 urte

Abenduak 31

Tolosako Udal Musika Banda
Urte zaharreko kalejira
Gorriti plaza - 19:30

Urtarrilak 5

Jaiotza lehiaketa
Gure Zirkua - 12:00-14:00
Izen-ematea: abenduaren 30era
arte, Kultur Etxean
Errege magoen etorrera
Harrera
Gure Zirkua - 10:30-13:30
Kabalgata
Plaza Zaharra - 18:00

Urtarrilak 6

Tolosako Udal Txistulari eta Musika Bandak
Errege eguneko kontzertua
Eduardo Mocoroa Musika Eskola - 12:30

Urtarrilak 12ra arte

Gabonetako karrusela
11:00-21:00
Itzuli 1: 2€ - 8 itzuliko bonua: 10€

ESZENA

Abenduak 26

Shado el Mago: Cleptomago
Magia
Leidor - 20:30

Abenduak 29

María Martin eta German Ormazabal
Musika
Topic - 19:00

Abenduak 30

Hau da dena
Antzerkia
Topic - 18:00

Euskal Herriko Gazte Orkestra
Musika
Leidor - 19:00

Urtarrilak 3

Eñaut Elorrieta eta Alos Quartet: 'Ahots kordak'
Musika
Leidor - 19:00

HELDUEN ZINEA

Abenduak 18

Urchin
Leidor - 20:30

Abenduak 20

Nuremberg
Leidor - 19:00
Blue Moon
Leidor - 22:00

Abenduak 21

Nuremberg
Leidor - 19:00

Abenduak 22

Blue Moon
Leidor - 19:00

Abenduak 23

Agárralo como puedas
Leidor - 20:30

Abenduak 27

Frontera
Leidor - 19:00
Golpes
Leidor - 21:30

Abenduak 28

Golpes
Leidor - 19:00

Abenduak 29

Frontera
Leidor - 19:00

Urtarrilak 2

Blue Sun Palace
Leidor - 20:30

Urtarrilak 4

Anaconda
Leidor - 19:00

Urtarrilak 6

Anaconda
Leidor - 19:00

Urtarrilak 8

Extraño río
Leidor - 20:30

HAURREN ZINEA

Abenduak 21

Olivia y el terremoto invisible
Leidor - 17:00

Abenduak 28

Misión Santa
Leidor - 17:00

Urtarrilak 4

Super Elfkinak
Euskaraz
Leidor - 17:00

GURE ZIRKUA

Abenduak 23

'Gure umorea' komedia jaialdia
Antolatzailea: Galtzaundi
Gure Zirkua - 19:00

Zirku emanaldiak

Abe. 26 12:00/18:00	Urt. 2 17:00/21:00	Urt. 9 19:00
Abe. 27 12:00/18:00	Urt. 3 17:00	Urt. 10 19:00
Abe. 28 12:00/18:00	Urt. 4 17:00	Urt. 11 12:00/18:00

Sarrerak: gurezirkua.eus

GAZTE TOPAGUNEA: GAZTE ASTEA

Abenduak 26

Donostiako Txuri-Urdin izotz jauregira irteera
10:00-15:30 - 10 €

Abenduak 27

Mahai-joko txapelketa: Xakea eta damak
Topagunea
17:00-20:00

Abenduak 28

Urte amaiera festa
Topagunea
17:00-20:00

Urtarrilak 2

Sendabelar ikastaroa
Topagunea
16:30-19:30

Urtarrilak 3

Estanpazio tailerra: Tote bag-ak, estutxeak eta motxilak
Topagunea
17:00-20:00

Urtarrilak 4

Filme-proiektzioa
Topagunea - 17:00

KIROLAK

Abe. 22 - Urt. 4

Eguberrietako XLIII. Garaje Tolosa areto-futbol txapelketa
Antolatzailea:
Tolosa CF
Usabal kiroldegia
09:00-21:00

Abe. 21, 27, 28;
Urt. 3, 4

XXII. Soroa Memoriala pilota txapelketa
Beotibar pilotalekua
16:30

Abenduak 31

Elkartasun krosa
Antolatzaileak:
Samaniego eta
Orixe ikastetxeak
Haurrak: 15:30
Helduak: 16:30
* Irabaziak:
Zutani elkartera
bideratuko dira

Urtarrilak 5

Binakako pilota txapelketa
Beotibar pilotalekua
17:15